

URDAIBAI

MAGAZINE ONLINE

2015
zenb. 01
.....

LURRA JO DAU KRISI EKONOMIKOAK BUSTURIALDEAN?



- | GERNIKAZARRA, 30 URTE
- | ARRATZUKO HERRIKO TABERNA
- | GERNIKAKO PIPERRA
- | BASOKO BIOMASA
- | FORUKO ERREGELAK

GU URDAIBAI

ZERGAIK?

Zergaitik sortzen da komunikabi- de bat?

Bokazioz, ezagutzera emoteko, zerbitzu gu-
rean, izaera ekintzailea dala eta... edota untze
bategaz bestea ataritzen dalako?

Zein da komunitate baten ekar- pena? Aniztasuna, lotura, gar- dentasuna, kultura, eguneroko- tasuna, izatea, ospea...nortasuna.

Aldizkari bat argitaratzea enpresa apostu
arriskutsua da, eta askoz gehiago, proiektua-
ri ekingo deutson enpresa burujabea, zirina,
bere beharragaz zorrotza eta esperientzia-
duna bada, baina agintzen dauan taldearen
laguntza ekonomikorik ez badauko. Proiektu
honetan Nueva Europa SL sortu zanetik gaur
arteko 20 urteetan burutu dauazan beste as-
kotan moduan, babes barik dago. Askok zo-
ratuta gagozala esango dau. Gure erantzuna
hauxe da: Nueva Europa egunero egiten du-
gunok zentzudunak gara, eta biziak, kritikoak
eta beharzaileak.

Gutziz talde parte-hartzailea gara. Nueva Eu-
ropan profesional bakotxa bere bizimodu-
gaz, baloreekaz, familiagaz ...sartzen da be-
te-beteen. Profesional taldea ezeze pertsona
profesionalen taldea be bagara, geure forma-
zioa, bizitza eta esperientziak aberasgarriak
dira beharrerako eta taldeak proiektuan sartzea
eta enpresak ingurune soziokulturean par-
tehartzea sendotzen dabe.

Gainera, jakin badakigu gure urian badagoela
zer esan, zer kontatu... bizi luzea bizi izandakoa,
baina bizitzeko bizi luzea dauan eskualdean
gagozala, eta horrexen barri emon gura dogu,
geure komunitatearen geroa eraikitzeko, geure
seme-alaben geroa, Busturialdean bizi eta
behar egiten dogunona.

Urdaibai Magazineren taldeko kideok zu be
proiektuaren parte izatea nahi dogu. Inpli-
ka zaitetz eta kolaboratu zure iradokizunak,
ideiak edota kezken bitartez. Zure iritzia esti-
matzen dogu.

(email: nuevaeuropa@nuevaeuropa.com).

AURKIBIDEA

ERREPORTAJEA



03

Busturialdea, krisi ekonomikoa?

LEKUKO



06

Gernikazarra, 30 urte

KALERIK KALE



08

Arratzuko Herriko Taberna

SAL TSA-PORRU



10

Gernikako piperra

BERDEAN



12

Basoko Biomasa

BETI-JAI



14

Foruko Erregelak

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA
S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

ARGITARATZAILEA: **NUEVA EUROPA S.M**

Carlos Gangoiti, 15, behea
Gernika-Lumo (Bizkaia)

email: nuevaeuropa@nuevaeuropa.com

web: www.nuevaeuropa.com

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso du.



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Kultura
Saila
Departamento
de Cultura

BUSTURIALDEAK BAZTERTU DAU LANGABEZIAREN HAZKUNDE TASA

Lurra jo dau krisi ekonomikoak?

2014an krisi ekonomikoan

gengozala, adituek 2015ean enpleguak eta aurrikuspen ekonomikoak gorantz egingo ebela esaten euskuen. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Zuzendaritzaren arabera, 2014an EAEko hazkunde ekonomikoa %1 izan zen eta 2015erako %1,7 dago iragarrita. 2015ean enplegua hazi da, baina geldi-geldi.

Busturialdeko suspertze ekonomikoa bideratzea ez da erreza, baina denborarik galdu barik egin behar da. Eskualdea %14ko langabezia tasatik ez da irten (2015eko apirila) Lanbiden 3.051 lagunek emon dabe izena; krisi industrialia ikaragarria da eta erakundeek ekintzailtzari, autoenplegua sustatzeari eta enpresa haztegiak sortzeko proiektu inportantei laguntza emonda konpondu gura dabe. Berrikuntzagaz eta PYMEak sortuta lortu gura da suspertze ekonomikoaren helburua eta enpresa eragileen indarra gehitu.

Pertsona ekimendunak asko izan dira, enpresa proiektuak martxan ipini dabez euren beharrerako aukera itxaropena edota aukera pertsonalak beteteko, baina eurotako askok eta askok gorriak ikusi dabez: salmenta gitxi, diru galtzeak eta za-

rratu egin behar. EUSTATEN datuen arabera, Busturialdean 2013an (2014/01/01) 300 enpresak alta emon eben eta 395ek baja. Beraz, azken saldoa negatiboa izan da, dugun egoera ekonomikoan enpresa ertain eta txiekiek jarduera mantentzeko gaitz daukelako. Langabezia, lan segururik

eza eta beldurra direla eta, jendeak kontsumoa murriztu egin dau. Lan bolumen haundirik ez dagoenez, PYMEak zarratu egiten dira ezin dabelako jasan krisi ekonomiko luze hau. Industria, merkataritza, turismo sektorea eta gero eta gehiago lehen sektorea ahalegintzen dira gurgil zoro hau apurtzen.

HASI DA BUSTURIALDEAN ERREKUPERAZIO SASOIA?



EUSKADIN, AZKEN BI URTEETAKO LANGABEZIAREN DATUAK HOBEAK DIRA.

Busturialdean, udalerrri, sexu, eta enplegu eskabidearen arabera, 2015eko urtarrileko egoera ikusita, Gernika-Lumo da eskualdeko langabezi tasarik haundiena daukona, %16; datu kezagarria da kontuan izanda, eskualdeko burua bera dela. Eskualdeko langabezia aztertuta eta Bermiori erreparatuz gero, eskualdeko burua da be, %14,8koa da; Mendatak dauko tasarik bajuena, %5,2.

2015eko maiatzaren langabeziaren datuak poztekoak dira, azken bi urteetan EAEko joera positiboa izan da, eta 2015erako iragarpenak be bai. Horrelako joera dauke eskualdean buru diren herri biek, Bermeo eta Gernika-Lumok eta Busturialdeak berak.



Arratzaleak Bermeoko portuan

LANBIDEN izena emondako langabetu enplegu-eskatzailleak sexu, adin, jarduera eta udalerrriaren arabera **2015eko urtarrila**

Iturria: www.lanbide.euskadi.eus

	BERMEO	BUSTURIA	EA	ELANTXOBE	EREÑO	GAUTEGIZ ARTEAGA	GERNIKA-LUMO	IBARRANGELU	MENDATA	MORGA
Langabetu Kopurua	1.191	127	34	16	9	59	1.293	33	10	22
Emakumeak Gizonak	609-582	64-63	12-22	8-8	3-6	23-36	693-600	19-14	8-2	10-12
% Langabetuak	%14,8	%15,3	%7,5	%10,5	%6,4	%11,8	%16	%9,8	%5,2	%9
Nekazaritza	41	7	0	0	0	1	26	0	0	1
Industria	194	16	8	3	1	12	260	4	0	4
Eraikuntza	139	15	3	3	2	6	107	1	1	3
Zerbitzua	687	77	21	9	6	28	725	27	9	14
Aurretik behar barik	130	12	2	1	0	12	175	1	0	0

BASERRI KULTURA NORTASUNA DA. ETORKIZUNA IZANGO ETE DA?

Azken 50 urteetan, Busturialdean lehen sektore-
ra bueltatzeko bidea hartu da. 2014ko urtarri-
laren 1eko Eustaten datuen arabera, Bustu-
rialdeko jarduera ekonomikoaren %8,16 lehen

sektorean dago. Nekazaritzatik bizi diren profesional kopurua txikoagoa da ez dagoalako familiaren arteko erreleborik. **Esplotazioak arrantza jarduera izan ezik, familiarrak dira.** Dana dala, bere izateak eta baserri kulturak iraun dau eta esplotazio profesional barriak sortu dira, **jauzi kualitativoa** eman dabe; batez ere, ortufruitukulturan, txakoligintzan eta abeltzaintzan (behi okela eta esnea).



Nekazal esplotazioa Busturialdean

2014ko urtarrilaren 1ean erregistratutako 3.415 establezimendutatik, %8,16 hain zuen, 279 **nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzan dagoz**, 12.758 behargin aktibotatik. 1.295 beharrea dagoz. Bermiok hartzen dau gehiena, 99 enpresa (983 beharleku) hantxe dagozalako arrantza sektoreko enpresa nagusiak. Gernika-Lumon, 39

(47 enplegu). Gainerako lehen sektoreko 141 enpresak (265 enplegu) eskualdeko 18 udalerrietan dagoz banatuta eta horreexek dira bene-benetan baserrikoak.

Sektoreka, **Busturialdean gehien eskatzen den beharra zerbitzu arlokoa** da eta ondoren **industria**, Bien artean Gernika-Lumon, eskualdearen burua, dago establezimendu/empresa gehien: 1.349, Bermion 1.057 eta 730 eskualdeko udalerrietan. Zerbitzu sektorea da nagusi (komertzioa, garraioa eta ostalaritza) establezimendurik gehien dauko eta beharlekurik gehien sortzen dau, 3.001 behargin dauz (2014ko urtarrilaren 1eko Eustaten datuak).

Ez da ikaratzekoa; izan be, **Busturialdea eta Biosfera Erreserba turismo potentzial handiak dira** eta ekimen pribatuak zein publikoak jarduera kulturalakaz eta denbora librekoekaz dinamizatu gura dabe.

MUXIKA	MUNDAKA	SUKARRIETA	ERRIGOITI	FORUA	KORTEZUBI	MURUETA	NABARNIZ	ARRATZU	AJANGIZ	BIZKAIA	EAE
78	118	22	20	63	23	15	11	13	13	96.647	172.165
39-39	56-62	10-12	9-11	29-34	13-10	7-8	5-6	8-5	7-6	49.719 46.928	90.114 82.051
%10,8	%12,8	%13,3	%6,8	%12,5	%10,2	%8,5	%9,8	%6,2	%5,7	%17	%15,9
4	1	0	1	0	0	0	0	0	1	1.594	3.371
20	14	4	3	13	2	1	1	3	4	12.236	24.184
6	12	1	2	6	4	0	3	1	1	11.212	17.771
43	79	14	13	37	14	14	5	6	7	62.176	110.791
5	12	3	1	7	3	0	2	3	0	9.429	16.048

Gernikazarra, 30 urte

Gernikazarra Historia Taldeak 30 urte daroaz Gernika-Lumoko Historiaren atalak batzen, aztertzen eta berreskuratzen, hasi Erdi Arotik eta gaur egunera. Alberto Iturriarte Gernikazarra taldeko presidentek lagundu deusku herria maite dauan boluntario historiazale talde honen nondik norakoak laburtzen.

Noiz eta zergaitik sortu zen Gernikazarra?


Gernikazarra 1985eko udan ipini gendun martxan. Kezka bat geunkon taldeko guztiok (herritar gehienek Gernika-Lumoko historia ez ezagutzea) eta ilusino bera (interesa eukon guztiari historia jakinarazotea).

Zelan hasi zineten?

Egia esan, lehenengo pausoak gataxak izan ziren. Batetik, ezin genduzan aztertu udal artxiboak (udalekoa, epaitegikoa, eleizakoa, ondasunen erregistrokoa) bonbardeaketan suntsitu zirelako. Bestetik, gure herriaren gainean idatzita zegoen guztia ikasten ibili ginen eta konturatu ginen Jose Antonio Arana, Sesmero, Echegaray edo Lecuberen ikerketak izan ezik, gainerakoen oinarria historikoa baino folklorikoa zela. Hau da, geuk idatzi behar genduala Gernika-Lumoren historia.

Zelan emon dozue Gernikako historiaren barri?

Geunkozan baliabide guztiekaz. Batetik, 16 liburu argitaratu doguz eta 180 ikerketa idatzi doguz Aldaba aldizkarian, faltea daukogun Urremendi aldizkarian, udal boletinean... Ikerketa eta liburu horreek Erdi Arotik gaur egun artekoa hartzen dabe eta ikuspuntu asko batzen dabez (gizartea, ohiturak, ekonomia edota politika) gure herriaren ikuspegi osoa eta zehatza emoteko. Bestetik, Gernika-Lumoko historia ezagutzera emoteko dozena bat erakusketa be antolatu doguz; arrakastatsuenak bai joan zan jendetzagaitik, bai kritikengaitik, Gerra zibila, bonbardeaketa eta herria berreraikitzearen gainekoak izan ziren; gainera, Gernikako Bakearen Museoren oinarria izan ziren.



Gernikaren sorrerea ospatuz,
apirilaren 28an



Mundaka, 1950. (Gernikazarraren artxiboa)



1899. (Gernikazarraren artxiboa)



Gernikazarra taldeko hideak



Gernika-Lumoko mugetatik martxa

Ibilbideak be antolatzen dozuez

Bai. Orain dala 25 urtetik hona ibilbide bi antolatzen doguz, debalde, eta eurotan hainbat gertakari enblematikoak gogoratzen doguz. Urtarrilaren 8ko urteeran Lumo eta Gernikaren batasuna gogoratzen dogu eta apirilaren 28koan Gernikaren sorrera, fundazioa.

Gernikaren gaineko zuen dokumentazio zentroak ospe haundia dauko

Gure dokumentazio zentroa urtero Gernika-Lumoren historiaren atalen batean interesatuta dagozan unibertsitateko ikasleek, ikertzaileek eta jendeak bisitatzen dabe. Guk argibide zehatzak emoten deusieguz dohainik.

Dokumentazio zentroak Gernikari buruz dagoan eta liburutegirik osoena dauko; udalerraren mila argazki inguruko artxiboa, antzinako mapa eta planoen bilduma eta eskualdeko industriaren, Lumo elizatearen, Gernika hiribilduaren, Errenteriaren, guda zibilaren eta bonbardeaketaren dokumentu fondoak daukoz.

Zelan definituko zeunke 30 urteetako zeuen beharra?

Hasiera-hasieratik honako oinarriak izaten ahalegindu gara: ikasteko umiltasuna, irakasteko hurrentasuna, pentsamendu independentzia, gertakari historiko batzuen gaineko mito, estereotipo eta siniskerien azterketa zorrotza, zehaztasun bako baieztapenak atzera botatzea eta ikerketa historiko serio eta sistematikoaren aldeko apostua.

Ze proiektu daukozue etorkizunerako?

Datorren urtean betetzen dira 650 urte Gernika eta Lumo banandu zirenetik eta Gernika hiribildu bihurtu zenetik. Gogoratzeko, 650 urteko historia batzen dauan erakusketa bat antolatzen ari gara. Bestalde, geure ikerketakaz jarraitzen dogu, agiriak, argazkiak... berreskuratzen.

30 urte pasatu arren, ilusinoagaz ikusten zaituegu

Horixe baietz! Gernika Lumoren historiaren barri emoteko ilusinoa lehenengo egunean moduan dago.



Gernikaren sorrerea ospatuz, apirilaren 28an



1904. (Gernikazarraren artxiboa)

ARRATZUKO HERRIKO TABERNA



“Bezeroagaz hartuemona izatea gustoko dot. Tratu ona, zerbitzu hobea eta jenero aparta estimatzen dodaz”

Marivi Zalloetxebarria Ugaldek, lanbidez administraria, Arratzuko Herriko taberna hartzea erabagi ebanean, ondo baino hobeto ekien zein zan erronka.

"Badakit herriko taberna bat zer dan, herriko taberna baten bizi izan naizelako. Tabernarien alaba naiz. Nire gurasoek taberna txikitxu bat euki eben Kortezubin, Ganbeko Taberna. Aurretik nire aitxixe-amumana izan zan. Herriko taberna badakigu zabala izan behar dala, jendea ondo hartu, zerbitzu ona emon eta neurriko prezioak izan" diño Marivik.

Kortezubikoa da, oin dala 24 urte ezkondu eta Arratzura joan zan bizitzera eta hantxe atera gura dau aurrera familia behar barri honegaz. Arratzuko Herriko taberna hartzeak familia eta beharra alkartzeko aukera emon deutso.

"Beti egin dot behar Administrazioan. Gero senarraren enpresan egin neban behar, eraikuntza enpresa baten, baina senarra gaixotu eta konstruzinoa beherantz joan zan. Enpresa zarratu eta senarra jubilatatu egin zan baliaezintasun absolutoagaz. Hau etxondoan dago eta herrian bertan lan egiteko aukera ikusi neban eta gustoko dodan gauza baten gainera".

Sukaldaria ordu batzuetan eta bestela Marivi bera egoten da bakarrik. 2015eko apirilaren 1ean zabaldu eban eta bezeria egiteko, negozioa aurrera ataratzeko eta Herriko Taberna izatean, herria dinamizatzeko eskaintza erakargarria behar ebala baekian.

"Mostradorean beti jeneroa eukitzea inportatea da. Gainera, ahalegintzen naz tabernari bizitasuna emoten; batez be udan, kandelak, loreak.. ipintzen dodaz. Tabernan beti dagoz lorak. Hemendik 4 kilometrora dagoen Gernikako jendea etortzea gura dot. Dana txukun, garbi, polito egon daiten ahalegintzen naz eta jateko ona eta prezio onean ematen", diño Marivik.

Marivarentzat bezero guztiak dira apartekoak, baina esperientzia ederra izan dau herritik igarotzen diren Santiago Bideko erromesekaz. "Bidea-Arratzu" binomioa beharrezkoa da herriari eta negozioari bizia emoteko. Erromesek eskertzen dabe non jan, atsedean egin, edota txartelari zigilua ipintzeko leku bat. Eta Arratzuk eskertzen dauz erromesak han geratzeagaitik.

"Uda ederra izan dot, jende asko etorri da, erromesak bai. Erromesak jende jatorra da, ondo heziak, atseginak... esperientzia ona daukot. Bezero guztiak dira apartekoak, baina erromesak jende ona da. Apiriletik zemendira bitartean asko etorri dira..." dinosku.

Gogorrena neguan izaten da, zelan iraun. Horretarako Arratzuko Herriko Tabernak eskaintza zabala dauko: eguneroko menuak, asteburuko menuak, karta edo mota guztietako pintxoak barran. Gainera, aurretiaz esanda, Gabonetarako jatekoa prestatzen dau etxera eroateko.



Arratzuko Herriko Taberna

"Gernikatik, Mundakatik, Bermeotik, Markinatik, Ondarroatik etortzen da jendea.... Beti daukot jendea, eta datorrena osterara be etortzen da. Herrikoak be pozik dagoz. Herriko tabernak egun osoko beharra eta ilusino handia eskatzen dauz. Nik ilusinoa daukot eta ikusten da. Badakit behar egin behar dodana, behar hau gustetan jat, beti gustatu izan jat. Mostradorea gustetan jat, bezeroagaz hartuemoz izatea, ikaragarri gustetan jat", onartzen dau Marivik.

GERNIKAKO PIPERRA, Altxor zaporetsua

Geure historia gastronomikoaren bene-benetako zaporea. GERNIKAKO PIPERRAK izena, kalitatea, kolorea, zaporea, izaera eta ospea daukoz.

Gernikako piperrak

Haziak zaindu, kontserbatu, eroin eta balore gastronomikoa eta sukaldaritzakoa neurtu, aztertu eta esan egiten dira. Lehen gurasoengandik seme-alabengana, gaur egun adituengandik ekoizlearengana. Ahosabaiaren eragiten dauazan sentrazioak askeak eta besterenduezinak dira eta menpekotasuna eragiten dau.

Eusko label zigilu bereizgarriak eta Jatorrizko Izenak Gernikako piperra ondare gastronomiko egin dabe gourmetentzat. Bizi iraupena danon esku dago.

Lagunarteko hizkuntzan, piper berba askotan erabiltzen da, konparazioetan batez be: "*pipertu; piper egin; duenak azer,piper...*" Baina **ikerketak eta marketing prozesu luzea behar izan da**, Espeletteko piperrarena be ikusi da, gizarteak Gernikako piperra ortuko balore eta kalitatezko produktu gastronomikotzat onartzeko.

Gaur egun goi mailako gastronomiak zapore berezien eta sukaldeko balorearen alde egiten dau. **Gastronomia kritikari ospetsuek produktua goretsi dabe** eta gure sukaldaririk entzutetsuenen kartan ez da faltako Gernikako piperra, baina saltzen eta erosten diren piper guztiak ez dira Labeldunak.

Etorkizuna geure esku

Herri jakinduriak Gernikako piperra barietatea ederto baten gordeten jakin izan dau. Gure baserrietan antzinatik hartu da eta mantentzeko, kontserbatzeko, zuztartzeko eta izena ez galtzeko ezinbestekoa izan da. Gainera, **Eusko Label bermearen zigiluak babeserako eta kalitatearen abal moduan balio dau**, merkatua ostu gura daben beste lurralde batzuetako piperrakaz **egiten den iruzurrari eta azerikeria aurre egiteko**.



Gernikako Piperra Jatorrizko Izena Europa mailan lege babes gorenagaz onetsita egon arren, etorkizuna geure esku dago, hainbat baserritarren eta ekoizleren beharra aitortzen dogun kontsumitzaileongan. Azken urteotako **datuek ekoizpena eta salmenta jaitsi egin direla ageri dabe**, lehen aitaturako iruzur gastronomikoaren erruz. Zenbat eta gehiago ezagutu hain berezkoa dogun produktua orduan eta errespetu handiagoa izango deutzogu.



Zapore gozoa ez da halabeharra!

Herri izen eta praktika kulturalak batera, ingurune geografikoaren klima beharrezkoa da produktuaren kalitatea eta berezitasuna bermatzeko. Piper gozoa da, ez dauko kapsizinarik edo neurri txikian, horregatik, gure klimaren baldintzetan ez dauko minik. Hezetasun handia, temperatura epela, gorabehera termiko txikia, lur nahiko azidoa eta airea dagoen lekuetan hartzen da. Gipuzkoa eta Bizkaian batez be, baina Araban be bai, Okendo, Laudio, Zuia, Zigotia edo Aramaion.

Busturialdea da Gernikako piperra hartzen den lekuetako bat. Apirilean eta maiatzean sartzen da kanpoan; berotegietan, ostera, otsailean, martxoan eta apirilean eta bigarrenez, bagilean. Eskuz batzen da maiatza eta zemendi bitartean. Ezin hobeto egokitzen denez, estalpeko teknikek azaluzatu egiten da.

1997an Gernikako piperrak Eusko Label ziurtagiria lortu eban bertoko beste 500 barietateren artean. HAZI Fundazioaren Araudi Teknikoan batura eta zehaztuta dauden kalitate baldintzak betetzen dabezan produktuek baino ez dauke zigilua.

ZELAN BEREIZTU?

- Etiketara, kontrol zenbakia eta Eusko Label zigilua du.
- Kolore berdea, erdi iluna eta distira apurtxu bat danean.
- 6-9 cm luze (pote baxoan gehienez 2cm-ko alde izan leiteke).
- Hiruki itxurakoa, estua eta luzanga.
- Haragi samurra, azal fina, leuna eta itxura freskoa.



Ebaki XXI (Muxika)

BASOKO BIOMASA BAI INGURUMENAREN ALDEKO APOSTUA BAI SOZIEKONOMIKOA

Egurra izan da beti historian zehar edozein erronkari aurre egiteko erabili izan den materiala, eraikuntzan, itsasontzizintzan, zubiak eta trenbideak egiteko, erregai moduan... Baina bizi-modu barriek baztertua geratu zen eta bes-

telako materialak erabiltzen hasi ginen. Gaur egun berrikuntza teknologikoari eta materiale jasagarrien onarpen gero eta handiagoari esker, egurrak bere izena lortu dau barriro be material lehiakor, jasagarri eta "energia berdea" lortzeko bide moduan.

Basoko biomasa aldaketa klimatikoaren kontrako tresna egokia da, baserri garapenerako eta energia berriztagarrietan oinarritutako ekonomietarantz zuzentzeko be bai. Gero eta sarriago ikusten doguz instalazio publiko zein pribatuetan, beroa sortzeko, biomasa erabiltzen daben kalderak. Horren adierazlea da pellet merkaturaren gorantz doala. Muxikako Ebepellet enpresak, Ebaki XXI honen bazkide nagusia da, pellet sortzaile gisa esperientzia baikorra eskeitzen dau:

“Momentu ona da merkaturako, dei-efektua eraginkorra izan da eta instalazio kopuruak gorantz egin dau. Pellet egile izan dogun bilakaera inportantea izan da, 2008an 10.000 tona izan genduzan eta gaur egun 20.000 tona.

Biomasa nahiko merkea da eta gero eta erosoagoa. Lehen biomasan inbertitzeko arrazoiak ingurumenarekin euker zer ikusia, gaur egun alderdi ekonomikoa be kontuan izaten da. Ebepellet-en pelleta etxean erabiltzeko sortzen da. Ingurumen ziurtagiria dauken ikutubako egur plantazioetatik ateratzen dan zerrautsetik lortzen da %100. Holan, kontsumitzaileentzat kalitatezkoa da eta egurraren errentagarritasuna bermatzen dau, lehen balio erantsi gutxiagoa zuena.



Basoko biomasaz berotutako negutegia

Ohiko erregaien ordezkoa

Gizarteak badaki egurra jasagarria dela. Egurraren industriak erabiltzen dauazan baliabideen %100 aprobetxatzen dau.

Basoan sortzen den guztiak balio dau. Energia berriztagarrien arloan, basoko biomasa kudeatzeak eta eraldatzeak betiko erabilera, beroa emoteko erregaitzat erabili izana, gaurkotzen dau, Euskadiko basoetan landare osasuna hobetzen dau eta suteen arriskua murrizten dau.

Betiko erregaiekaz lehiatu behar dau, baina basoko biomasa energia termikoa ekoizteko aukera da. Bertoko baliabide energetiko eta berriztagarri moduan eta prezio lehiakorrean autohornikuntzan aurrerantz egiten laguntzen dau. **(Euskadiko energia berriztagarrien ekoizpenaren %57 eta EAEn erabiltzen den energiaren %7)** gainera, basogintzan, egurraren eraldaketan eta zer ikusia dauken enpresetan beharra sortzen dau.

Honelako sistema erabiltzen dabe Europako Iparraldean, egurraren kultura askoz be zabalduago eta sustraituago dagoelako; gure artean denbora luzeagoa behar izan dau. **“Instalazioa garestiagoa da, baina berehala amortizatzen da. Nahiz eta erregai fosilen prezio jaitsiera izan, gasoila edo propanoa honen kasu, prezioan pelleta kilowatioko edota energia unitateko lehiakorra izaten jarraitzen dau”** esaten dabe Ebepellet-etik.

Orain dala urte gitxi arte pellet banatzea astuna zen, gaur egun, ostera, banaketa azkarra da eta ondo antolatua dago. Gainera, pellet estufen funtzionaltasuna, barietatea eta diseinua gehitzen badeutseguz, berogailu sistema honek konfidantza ematen deusku.



FORUKO ERREGELAK: MENDE HASIERAKO

Erregelak mendeko hasierako geure folkloreaken dantza soziala dira; Forun. Herriko Urdaibai Dantza Taldeari esker berreskuratu egin da.

Urtero, uztailaren 31n, San Inazio egunean, meza nagusiaren ostean, Foruko udaletxeko plazan "Aurreskua" edo Erregelak" dantzatzeko dabez Urdaibai Dantza Taldekoek, lehenago herriko gazteek egiten zuten moduan. Dantza haundi eta erakargarria da, Willhem von Humboldt bera ere harritu ebana eta bere egunerokoan "El Viaje al País Vasco" (1801) holan esaten dau: *"... ikusi dodan zorientasunaren leherketarik naturalena da. Dantzari ilada bat, zirkuloan mobiduten da, geldi-geldi biratuz eta gero, gero eta arinago. Iladako buruak artaziak egiten dauz eta besteek*

jarraitu egin behar dabe. Bat-batean iladako batek urten eta beste dantzari bat harritu nahian, ipurdi kolpe bat ematen deutso ipurdian oreka galdu eragin guran".

Nagusiek Erregela laburrak eta luzeak egoazala gomutatzen dira eta denek ez ekitela dantzatzeko. Bizkaiko hainbat herritan egiten ziren eta Durangaldean eta Gernikan egiten ziren pausoak desberdinak izan arren, arau bat jarraitzen zuten: atal melodiko bakoitzaren amaiera pausu berdinez amaitzen dabe.



D FOLKLOREA GAUR

txistu eta danbolin soinuagaz dantzaten ziren San Inazio egunean, iraurarazoteko eta Euskal izaera jagoteko.

Izaera eta folkorea

Segundo Olaeta gernikarrak Elizateko aureskua eta erre-gelak berreskuratu ebazan eta Bittor Olaetari erakutsi eutso-zan eta honek bere ikasleei, euron artean, Urdaibai Dantza Taldeari. Taldeak Forun ikerketa-behar handia burutu eban dantza honen gainean. Lehenago plaza mutilek edo saragi-mutil bik dantzaten eben alkatearen aurrean, hau makila eskuan, udal korporazioagaz batera banku baten egoten zan.

Ikusten dena ohiko ikuskizun hungigarria da, kolorez eta musiz-kanz bete.

Gaur egun jaietan gozatu ahal dogu, herriko taldeak koreografia zehatza birsortu dauelako. Horretarako, 1981 inguruan osatu eben guztia, Bittor Olaeta dantzari bikainagaz eta bere Foruko garai baten teko janzkera berreskuratzeko lanari esker.





Arotz

EGURRAREN IBILBIDE TURISTIKOA

Aisialdi osasuntsuko eta "izpiritu
jasangarriko" bisita naturalak eta kulturalak.
Familian, bikotearekin, lagunekin...urte
guztian zehar

.....
Erreserbak: visiturdaibai@nuevaeuropa.com

Tel. 94 625 06 06 - 634243762 / www.visiturdaibai.com



Bizkaia

Zer ideia ona!
nueva europa
EKIMEN TURISTIKOAK